

**UDALEKO OSOKO BILKURAREN OHIKO
BILERA**

2017ko abenduaren 22a

Lesakako Herriko Etxeko Bilera Aretoan, bi mila eta hamazazpigarren urteko abenduaren 22an, ortzirala, ilunabarreko zazpitan, udaleko Osoko Bilkura bildu da, ohiko bileran eta lehenengo deialdian, Jose Luis Echegaray Andueza alkate jaunaren lehendakaritzapean eta honako zinegotzi hauek etorri direla: Iban de Prado Etxepeteleku, Esteban Irazoqui Irazoqui, Jose Maria Portu Ochoteco, Maider Arrieta Tapia, Oier Iantzi Ordoki, Lorea Flores Compains, Severiano Txoperena Matxikote eta Mattin Etxabide Gartzia jaun-andreak.

Ez da agertu Maria Victoria Gortari Aldave zinegotzi andrea, eta ez etorri izana justifikatu du.

Idazkari lanetan, Andoni Esparza Leibar jauna ari da, udaleko idazkaria.

2015eko ekainaren 19ko Osoko Bilkuran erabakitakoarekin bat, bilkura guziaren soinu-grabaketa eginen da, geroago Udalaren web orrian zintzilikatzeko. Akten idazkerari dagokionez, kontuan hartu da 2016ko maiatzaren 20an eginiko bilkurako 1. puntuan adierazitakoa.

Alkate jaunaren aginduz, bilkura hasi da eta, deialdiari jarraituz, honako gai hauei buruz aritu dira:

**SESIÓN ORDINARIA DEL PLENO
DEL AYUNTAMIENTO**

22 de diciembre de 2017


En el Ayuntamiento de la Villa de Lesaka, siendo las diecinueve horas del viernes 22 de diciembre del año dos mil diecisiete, se reúne, en sesión ordinaria y a primera convocatoria, el Pleno municipal, presidido por el señor alcalde don José Luis Echegaray Andueza y con la asistencia de los siguientes concejales: don Iban de Prado Etxepeteleku, don Esteban Irazoqui Irazoqui, don José María Portu Ochoteco, doña Maider Arrieta Tapia, don Oier Iantzi Ordoki, doña Lorea Flores Compains, don Severiano Txoperena Matxikote y don Mattin Etxabide Gartzia.

No acude, habiendo excusado su inasistencia, la concejal doña María Victoria Gortari Aldave.

Actúa como secretario, el de la Corporación, don Andoni Esparza Leibar.

En cumplimiento de lo acordado por el Pleno del Ayuntamiento con fecha 19 de junio de 2015, se realizará una grabación de sonido de la totalidad de la sesión, con el fin de colgarla posteriormente en la página web municipal. En cuanto a la redacción de las actas, es tenido en cuenta lo indicado en el punto 1 de la celebrada el 20 de mayo de 2016.

Por disposición del señor alcalde se da comienzo a la sesión en la que, conforme a la convocatoria, son tratados los siguientes asuntos:



1

**1 – AZKEN BILKURARI DAGOKION
AKTAREN ONESPENA**

Osoko Bilkurak, aho batez, azken bilkurako akta onartu du, 2017ko azaroaren 24koa.

**2 – FRANCISCA ECHARTE TAPIAK
ESKATUTAKO OIHAN
APROBETXAMENDUA**

2017ko azaroaren 27an aurkezturiko eskaerak aztertuta (3.479. eta 3.480. sarrerak Udaleko Erregistro Orokorrean) Osoko Bilkurak honako hau erabaki du aho batez:

1.) Nafarroako Gobernuko Oihanaren Kudeaketa Zerbitzuaren aitzinean tramitatzea Francisca Echarte Tapia andreak eginiko eskaerak, hurrengo oihan aprobetxamenduak egiteko:

- Intsinis pinuren matarrasa, Sutikoerreka parajea, Zalain Zokon. Moztu behar den azalera 7.089,12 m²-koa da. Katastroko 1. poligonoko 210 partzelaren N azpipartzelari dagokio (Aprobetxamenduaren erreferentzia: Oihapart/2017/29).

- Intsinis pinuren matarrasa, Lertxunegi parajea, Zalain Zokon. Moztu behar den azalera 14.531 m²-koa da. Katastroko 1. poligonoko 210 partzelaren K azpipartzelari dagokio (Aprobetxamenduaren erreferentzia: Oihapart/2017/30).

2.) Lanak hasi baino lehen horren berri eman beharko dio Udalari, eta baita

**1 – APROBACIÓN DEL ACTA
CORRESPONDIENTE A LA ÚLTIMA
SESIÓN**

El Pleno aprueba por unanimidad el acta de la última sesión, celebrada el día 24 de noviembre de 2017.

**2 - APROVECHAMIENTOS
FORESTALES SOLICITADOS POR
FRANCISCA ECHARTE TAPIA**





Examinadas las instancias presentadas con fecha 27 de noviembre de 2017 (entradas nº 3.479 y 3.480 en el Registro General del Ayuntamiento), el Pleno acuerda por unanimidad:

1º) Tramitar ante el Servicio de Gestión Forestal del Gobierno de Navarra las solicitudes formuladas por doña Francisca Echarte Tapia, para realizar los siguientes aprovechamientos forestales:

- Una matarrasa de pinos en el paraje de Sutikoerreka, en Zalain Zoko. La superficie de corta es de 7.089,12 m². Corresponde a la subparcela N de la parcela 210 del polígono 1 del catastro (Referencia del aprovechamiento: Oihapart/2017/29).

- Una matarrasa de pinos en el paraje de Lertxunegi, en Zalain Zoko. La superficie de corta es de 14.531 m². Corresponde a la subparcela K de la parcela 210 del polígono 1 del catastro (Referencia del aprovechamiento: Oihapart/2017/30).

2º) Con carácter previo al comienzo de las labores de saca, deberá comunicárselo al



aprobetxamendua amaitu baino lehen ere, hark egiaztatu ahal izateko nola gelditu diren erabili diren bideak.

Halaber, ezarritako fidantza jarri beharko du, eta horren zenbatekoa jakinaraziko zaio.

Bideak ezin izanen dira egoera txarrean utzi. Hori gertatuz gero, hamabortz eguneko epea emanen zaio haiek konpontzeko. Bertzela, Udalak berak moldatuko ditu, aprobetxamendua egin duten jabeen kontura.

Orokorrean, eguraldi euritsuarekin ezin izanen da egurrik garraiatu, baldin eta horretarako baimen espresa ematen ez bazaio.

3.) Eskatzaileari jakinaraztea, berak sustatutako herri-ondasunei buruzko hitzarmen transakzionalaren ondorioz, aprobetxamendu hauek egin ondoren, lur eremu hauek, oso-osorik, Lesakako Udalaren komunalera pasatuko direla. Jakinaraztea Udalarari ordaindu beharko diola aprobetxamenduaren balioaren %10a.

3 - AURREKONTUAREN ALDAKETA. HASIERAKO ONESPENA (3/2017 ZENBAKIKO ESPEDIENTEA)

Azaroaren 28an kontu-hartzaileak eginiko txosten batean, adierazten du beharrezkoa dela aldaketa bat egitea Udalaren 2017. urterako aurrekontuan.

Jasotzen du 35.000,00 €-ko hornidura kontusail batera. Berau, Irain Eskola Publikoko inbertsio batetara bideratuko da.

Ondoren, eta aipaturiko txostenean

Ayuntamiento y también antes de finalizar las mismas, a fin de que éste pueda comprobar el estado de los caminos utilizados.

Para ello tendrá que constituir la fianza establecida, cuyo importe le será comunicado.

Los caminos no podrán dejarse en malas condiciones. Si esto sucediera, se le dará un plazo de quince días para arreglarlos. En caso contrario, los reparará el Ayuntamiento, a cargo de los propietarios del aprovechamiento.

En general, no podrá transportarse madera con tiempo lluvioso, salvo que se le conceda una autorización expresa para ello.

3º) Comunicarle que como consecuencia del convenio transaccional sobre bienes comunales suscrito por la promotora, una vez realizados estos aprovechamientos, los terrenos pasarán a ser íntegramente del comunal del Ayuntamiento de Lesaka. Comunicarle que deberá abonar al Ayuntamiento el 10% del valor del aprovechamiento.

3 - APROBACIÓN INICIAL DE LA MODIFICACIÓN DEL PRESUPUESTO (EXPEDIENTE Nº 3/2017)

En un informe emitido por el interventor con fecha 28 de noviembre, señala la necesidad de realizar una transferencia en el Presupuesto del Ayuntamiento para el año 2017.

Contempla la dotación de 35.000,00 € a una partida. La misma se destinará a inversiones en el Colegio Público Irain.

A la vista de lo señalado en el citado

adierazitakoa ikusita, eta kontuan hartuta Nafarroako Toki Administrazioiko Foru-legearen 271. artikuluan ezarritakoa (lege hori Nafarroako toki-araubidea eguneratzeko 11/2004 Foru-legeak aldatu zuen), Udaltzarak, aho batez, honako hau erabaki du:

1.) Hasiara batean onestea aurrekontua aldatzeko 3/2017 espedientea.

2.) Espediente hori hamabortz egun baliodunean jendaurrean edukitzea, aldeztuz aitzinetik Nafarroako Aldizkari Ofizialean eta Herriko Etxeko iragarkien taulan iragarki bana paratuta, herritarrek edo interesdunek aztertu ahal dezaten eta egoki iruditzen zaizkien erreklamazioak egin ditzaten.

4 - AURREKONTUAREN ALDAKETA. HASIERAKO ONESPENA (4/2017 ZENBAKIKO ESPEDIENTEA)

Azaroaren 28an kontu-hartzaileak eginiko txosten batean, adierazten du, beharrezkoa dela kreditu transferentziak egitea partiden artean 2017ko Udalaren Aurrekontuan aurreikusitako gehiegizko saldoa zuzentzeko.

Jasotzen du 55.700,00 €-ko hornidura helburu horretarako.

Ondoren, eta aipaturiko txostenean adierazitakoa ikusita, eta kontuan hartuta Nafarroako Toki Administrazioiko Foru-legearen 271. artikuluan ezarritakoa (lege hori Nafarroako toki-araubidea eguneratzeko 11/2004 Foru-legeak aldatu zuen), Udaltzarak, aho batez, honako hau erabaki du:

1.) Hasiara batean onestea aurrekontua

informe y teniendo en cuenta lo establecido por el artículo 271 de la Ley Foral de Administración Local de Navarra (modificada por la Ley Foral 11/2004, para la actualización del régimen local de Navarra), el Pleno acuerda por unanimidad:

1º) Aprobar inicialmente el expediente de modificación presupuestaria 3/2017.

2º) Someter el mismo a exposición pública, por periodo de quince días hábiles, previo anuncio en el Boletín Oficial de Navarra y en el tablón de anuncios del Ayuntamiento, a fin de que los vecinos o interesados puedan examinarlo y formular las reclamaciones que estimen oportunas.

4 - APROBACIÓN INICIAL DE LA MODIFICACIÓN DEL PRESUPUESTO (EXPEDIENTE Nº 4/2017)

En un informe emitido por el interventor con fecha 28 de noviembre, señala la necesidad de realizar transferencias de crédito entre partidas para poder corregir el saldo en exceso previsto en el Presupuesto del Ayuntamiento para el año 2017.

Contempla la dotación de 55.700,00 € con esa finalidad.

A la vista de lo señalado en el citado informe y teniendo en cuenta lo establecido por el artículo 271 de la Ley Foral de Administración Local de Navarra (modificada por la Ley Foral 11/2004, para la actualización del régimen local de Navarra), el Pleno acuerda por unanimidad:

1º) Aprobar inicialmente el expediente de

The bottom of the page features several handwritten signatures in black ink. On the left, there is a large, stylized signature. In the center, there is a circular stamp with a signature inside it. To the right, there are several more signatures, some of which appear to be official or institutional. The text '1.) Hasiara batean onestea aurrekontua' and '1º) Aprobar inicialmente el expediente de' is partially obscured by these signatures.

aldatzeko 4/2017 espedientea.

2.) Espediente hori hamabortz egun baliiodunean jendaurrean edukitzea, aldez aitzinetik Nafarroako Aldizkari Ofizialean eta Herriko Etxeko iragarkien taulan iragarki bana paratuta, herritarrek edo interesdunek aztertu ahal dezaten eta egoki iruditzen zaizkien erreklamazioak egin ditzaten.

5 - TERESA ALZUGARAY PORTU- REN TRANSAKZIO HITZARMENAREN AZALERAREN ZUZENKETA

2017ko uztailaren 17ko osoko bilkuraren akordioaren bitartez, Lesakako Udalak Teresa Alzugaray Portu andreak sustatutako herri-hondasunen gaineko transakzio-hitzarmena onartu zuen. Horren arabera, hitzarmenaren azalera 67.838 m²koa da. Eta operazioaren ondorio bezala 14.061,50 m² partikularrentzat izango ziren. Hori, lursailaren zati bat, 322 m², hiri-lurrean esleitzen zaiolako da eta honek balio haundiagoa duelako (hiri-lurreko m² 1 10m²-ren baliokidea da larrekolurzoruan).

Orain, 2017/11/13ko datarekin (3347.sarrera zenbakia Udaleko Erregistro Orokorrean), txosten bat jaso da horri buruz, Nafarroako Gobernu Komunalen Sekziotik.

Bertan esaten denaren arabera, Sekzio horretatik sustatzaileari egokitu zitzaizkion lurak mugarrizera etorri ziren orduan, desberdintasunak aurkitu dituzte esleitzen zaion azaleran eta hirigunean dagoen azalerari dagokionez. Eta lur hauen balio haundiagoaren ondorioz, egokitzen zaion azalera totala 13.880,06 m²koa izan behar du,

modificación presupuestaria 4/2017.

2º) Someter el mismo a exposición pública, por periodo de quince días hábiles, previo anuncio en el Boletín Oficial de Navarra y en el tablón de anuncios del Ayuntamiento, a fin de que los vecinos o interesados puedan examinarlo y formular las reclamaciones que estimen oportunas.

5 - RECTIFICACIÓN DE SUPERFICIE EN EL CONVENIO TRANSACCIONAL DE TERESA ALZUGARAY PORTU

Mediante acuerdo del pleno de fecha 17 de julio de 2017, el Ayuntamiento de Lesaka aprobó el convenio transaccional sobre bienes comunales promovido por doña Teresa Alzugaray Portu. Según el mismo, la superficie objeto de convenio es de 67.838 m². Y como consecuencia de la operación serían para el particular 14.061,50 m². Ello, porque parte del terreno, 322 m², se le adjudica en suelo urbano y éste tiene un valor mayor (1 m² en suelo urbano equivale a 10 m² en suelo rústico).

Ahora, con fecha 13/11/2017 (entrada número 3347 en el Registro del Ayuntamiento), se ha recibido un informe al respecto de la Sección de Comunales del Gobierno de Navarra.

Según se indica en el mismo, al procederse por dicha Sección al amojonamiento de las parcelas que se le habían adjudicado a la promotora, se han encontrado diferencias en cuanto a la superficie que se le asigna y que se halla en casco urbano. Y como consecuencia del mayor valor de estos terrenos, la superficie total que le corresponde debe ser de

Handwritten signatures and stamps at the bottom of the page. On the left, there are several overlapping signatures in black ink. In the center, there is a circular stamp with some illegible text inside. To the right, there are more signatures and a small stamp with the number '5'.

horietatik 342,16 m² hiri-lurrean daudelarik (lehen egokitutako azalera 14.061,50 m² koa zen, horietatik 322m² hiri-lurrean).

Mendi- Batzordeak espedientea aztertu du abenduaren 11n eginiko bileran.

Hori dena kontutan hartuz, Osoko-Bilkurak aho batez erabaki du:

1.) 2017/07/17ko datako Osoko Bilkuran Teresa Alzugaray Portu andreari hitzarmenean esleitutako azalera zuzentzea, hortaz, azalera hau 13.880,06 m²-koa izando da, 342,16 m² hiri-lurrean daudelarik.

2.) Aipaturiko datan hartutako eta hitzarmen honi lotutako gainerako akordioak berrestea.

3.) Erabaki honen berri jakinaraztea Nafarroako Gobernuako Komunalen Sekzioari eta hitzarmenaren sustatzaileari, Teresa Alzugaray Portu andreari (aipatutako txostenaren kopia bat ere emango zaio), azken honi adieraziz, azkenik esleitu zaion azaleraren adostasuna sinatzera Udaletxera joan beharko duela.

13.880,06 m², de los que 342,16 m² están en suelo urbano (antes la superficie asignada era de 14.061,50, de ellos 322 m² en suelo urbano).

El expediente ha sido examinado por la Comisión de Montes en reunión celebrada el día 11 de diciembre.

Teniendo en cuenta todo ello, el Pleno acuerda por unanimidad:

1º) Rectificar la superficie asignada en el convenio a doña Teresa Alzugaray Portu en el pleno de fecha 17-07-2015, de modo que ésta será de 13.880,06 m², de los que 342,16 m² están en suelo urbano.

2º) Ratificar el resto de los acuerdos adoptados en dicha fecha y referidos a este convenio.

3º) Notificar este acuerdo a la Sección de Comunales del Gobierno de Navarra y a la promotora del convenio, doña Teresa Alzugaray Portu (a quien se le entregará igualmente copia del citado informe), indicando a esta última que deberá acudir al Ayuntamiento al objeto de firmar la conformidad con la superficie que finalmente se le ha asignado.

**6 - SANTIAGO ZAPIRAIN
TELLECHEAK ESKATUTAKO OIHAN
APROBETXAMENDUA**

2017ko abenduaren 11n aurkezturiko eskaera aztertuta (3.580. sarrera Udaleko Erregistro Orokorrean), Osoko Bilkurak honako hau erabaki du aho batez:

1º) Nafarroako Gobernuako Oihanaren

**6 - APROVECHAMIENTO FORESTAL
SOLICITADO POR SANTIAGO ZAPIRAIN
TELLECHEA**

Examinada la instancia presentada con fecha 11 de diciembre de 2017 (entrada nº 3.580 en el Registro General del Ayuntamiento), el Pleno acuerda por unanimidad:

1º) Tramitar ante el Servicio de Gestión

Kudeaketa Zerbitzuaren aitzinean tramitatzea Santiago Zapirain Tellechea jaunak eginiko eskaera, oihan aprobetxamendua egiteko, Haritz Amerikarraren matarrasa egiteko, Errementako-Gaztañeta parajea, Izotzaldean. Moztu behar den azalera 827 m² –koa da. Katastroko 3 poligonoko 212 partzelaren C eta L azpipartzelei dagokio (Aprobetxamenduaren erreferentzia: Oihapart/2017/33).

2.) Lanak hasi baino lehen horren berri eman beharko dio Udalari, eta baita aprobetxamendua amaitu baino lehen ere, hark egiaztatu ahal izateko nola gelditu diren erabili diren bideak.

Halaber, ezarritako fidantza jarri beharko du, eta horren zenbatekoa jakinaraziko zaio.

Bideak ezin izanen dira egoera txarrean utzi. Hori gertatuz gero, hamabortz eguneko epea emanen zaio haiek konpontzeko. Bertzela, Udalak berak moldatuko ditu, aprobetxamendua egin duten jabeen kontura.

Orokorrean, eguraldi euritsuarekin ezin izanen da egurrik garraiatu, baldin eta horretarako baimen espresa ematen ez bazaio.

3.) Eskatzaileari jakinaraztea finka horiek komunal ageri direla udal katastroan, eta, ondorioz, erabaki honek ez duela deus adierazten lur-eremuaren jabetzari buruz (dagokion transakzio-hitzarmena sinatua du Udalarekin baino gaur egun tramiteetan dago).

Forestal del Gobierno de Navarra la solicitud formulada por don Santiago Zapirain Tellechea, para realizar una matarrasa de roble americano en el paraje de Errementako-Gaztañeta, en Izotzaldea. La superficie de corta es de 827 m.2. Corresponde a las subparcelas C y L de la parcela 212 del polígono 3 del catastro (Referencia del aprovechamiento: Oihapart/2017/33)

2º) Con carácter previo al comienzo de las labores de saca, deberá comunicárselo al Ayuntamiento y también antes de finalizar las mismas, a fin de que éste pueda comprobar el estado de los caminos utilizados.

Para ello tendrá que constituir la fianza establecida, cuyo importe le será comunicado.

Los caminos no podrán dejarse en malas condiciones. Si esto sucediera, se le dará un plazo de quince días para arreglarlos. En caso contrario, los reparará el Ayuntamiento, a cargo de los propietarios del aprovechamiento.

En general, no podrá transportarse madera con tiempo lluvioso, salvo que se le conceda una autorización expresa para ello.

3º) Comunicarle que las fincas figuran como comunal en el catastro municipal, por lo que este acuerdo no supone pronunciamiento alguno sobre la propiedad de la misma (habiéndose suscrito el correspondiente convenio con el Ayuntamiento y encontrándose actualmente en trámites).

JUAN PICABEA ETA

7

- APROVECHAMIENTOS

The bottom of the document features several handwritten signatures in black ink. On the left, there are two large, overlapping signatures. In the center, there is a signature that appears to be 'JUAN PICABEA' followed by 'ETA'. To the right of this, there is a signature that looks like '7'. Further right, there are several more signatures, some of which are partially obscured or written over. The text 'APROVECHAMIENTOS' is printed in a bold, sans-serif font at the bottom right, with a hyphen and the number '7' to its left.

MARGARITA ZUBIRIK ESKATUTAKO OIHAN APROBETXAMENDUAK

2017ko abenduaren 11n aurkezturiko eskaerak aztertuta (3.590. eta 3.591. sarrerak Udaleko Erregistro Orokorrean), Osoko Bilkurak honako hau erabaki du aho batez:

1.) Nafarroako Gobernuko Oihanaren Kudeaketa Zerbitzuaren aitzinean tramitatzea Juan Picabea Alzugaray jaunak eta Margarita Zubiri Mitxelena andreak eginiko eskaerak, honako oihan aprobetxamenduak egiteko:

- Idortutako Intsinis pinuren matarrasa, Itzotzaldea parajea. Moztu behar den azalera 10.550 m²-koa da. Katastroko 4. poligonoko 15 partzelaren P azpipartzelako zatiari dagokio (Aprobetxamenduaren erreferentzia: Oihapart/2017/31).

- Idortutako Intsinis pinuren matarrasa, Amotrin parajea. Moztu behar den azalera 5.002 m²-koa da. Katastroko 6. poligonoko 2 partzelaren j azpipartzelako zatiari dagokio (Aprobetxamenduaren erreferentzia: Oihapart/2017/32).

2.) Lanak hasi baino lehen horren berri eman beharko diote Udalari, eta baita aprobetxamendua amaitu baino lehen ere, hark egiaztatu ahal izateko nola gelditu diren erabili diren bideak.

Halaber, ezarritako fidantza jarri beharko dute, eta horren zenbatekoa jakinaraziko zaio.

Bideak ezin izanen dira egoera txarrean utzi. Hori gertatuz gero, hamabortz eguneko epea emanen zaie haiek konpontzeko. Bertzela, Udalak

FORESTALES SOLICITADOS POR JUAN PICABEA Y MARGARITA ZUBIRI

Examinadas las instancias presentadas con fecha 11 de diciembre de 2017 (entradas nº 3.590 y 3.591 en el Registro General del Ayuntamiento), el Pleno acuerda por unanimidad:

1º) Tramitar ante el Servicio de Gestión Forestal del Gobierno de Navarra las solicitudes formuladas por don Juan Picabea Alzugaray y doña Margarita Zubiri Mitxelena, para realizar los siguientes aprovechamientos forestales:

- Una matarrasa de pino insignis enfermo en el paraje de Izotzaldea. La superficie de corta es de 10.550 m². Corresponde a parte de la subparcela P de la parcela 15 del polígono 4 del catastro (Referencia del aprovechamiento: Oihapart/2017/31).

- Una matarrasa de pino insignis enfermo en el paraje de Amotrin. La superficie de corta es de 5.002 m². Corresponde a parte de la subparcela J de la parcela 2 del polígono 6 del catastro (Referencia del aprovechamiento: Oihapart/2017/32).

2º) Con carácter previo al comienzo de las labores de saca, deberán comunicárselo al Ayuntamiento y también antes de finalizar las mismas, a fin de que éste pueda comprobar el estado de los caminos utilizados.

Para ello tendrán que constituir la fianza establecida, cuyo importe le será comunicado.

Los caminos no podrán dejarse en malas condiciones. Si esto sucediera, se les dará un plazo de quince días para arreglarlos. En caso contrario,

berak moldatuko ditu, aprobetxamendua egin duten jabeen kontura.

Orokorrean, eguraldi euritsuarekin ezin izanen da egurrik garraiatu, baldin eta horretarako baimen espresa ematen ez bazaio.

3.) Eskatzaileei jakinaraztea, beraiek sustatutako herri-ondasunei buruzko hitzarmen transakzionalen ondorioz, aprobetxamendu hauek egin ondoren, lur eremu hauek, oso-osorik, Lesakako Udalaren komunalera pasatuko direla. Jakinaraztea Udalari ordaindu beharko diotela aprobetxamenduaren balioaren %10a.

8 - MIGUEL MARIA ALMANDOZ MICHELENAK ESKATUTAKO OIHAN APROBETXAMENDUAK

2017ko abenduaren 11n aurkezturiko eskaerak aztertuta (3.581., 3.586. eta 3.589. sarrerak Udaleko Erregistro Orokorrean), Osoko Bilkurak honako hau erabaki du aho batez:

1.) Nafarroako Gobernuak Oihanaren Kudeaketa Zerbitzuaren aitzinean tramitatzea Miguel Maria Almandoz jaunak eginiko eskaerak, honako oihan aprobetxamenduak egiteko:

- Akazien matarrasa, Belzaun parajearen. Moztu behar den azalera 8.052 m²-koa da. Katastroko 3. poligonoko 261 partzelaren M eta D azpipartzelako zatiei dagokio (Aprobetxamenduaren erreferentzia: Oihapart/2017/34).

Akazien, gereziendoen eta

los reparará el Ayuntamiento, a cargo de los propietarios del aprovechamiento.

En general, no podrá transportarse madera con tiempo lluvioso, salvo que se le conceda una autorización expresa para ello.

3º) Comunicarles que como consecuencia de los convenios transaccionales sobre bienes comunales suscritos por los promotores, una vez realizados estos aprovechamientos, los terrenos pasarán a ser íntegramente del comunal del Ayuntamiento de Lesaka. Comunicarles que deberán abonar al Ayuntamiento el 10% del valor del aprovechamiento.

8 - APROVECHAMIENTOS FORESTALES SOLICITADOS POR MIGUEL MARÍA ALMÁNDOZ MICHELENA

Examinadas las instancias presentadas con fecha 11 de diciembre de 2017 (entradas nº 3.581, 3.586 y 3.589 en el Registro General del Ayuntamiento), el Pleno acuerda por unanimidad:

1º) Tramitar ante el Servicio de Gestión Forestal del Gobierno de Navarra las solicitudes formuladas por don Miguel María Almándoiz Michelena, para realizar los siguientes aprovechamientos forestales:

- Una matarrasa de acacias en el paraje de Belzaun. La superficie de corta es de 8.052 m². Corresponde a parte de las subparcelas D y M de la parcela 261 del polígono 3 del catastro (Referencia del aprovechamiento: Oihapart/2017/34).

• Una matarrasa de acacias, cerezos y

gaztainondoen matarrasa, Frain parajea. Moztu behar den azalera 4.000 m²-koa da. Katastroko 3. poligonoko 650 partzelaren A eta C azpipartzelako zatiei, 401 poligonoko A azpipartzelako zatiari, eta 651 poligonoko A azpipartzelako zatiari dagokio (Aprobetxamenduaren erreferentzia: Oihapart/2017/35).

- Akazien eta Intsinis pinuren matarrasa, Peruarangoerreka parajea. Moztu behar den azalera 16.104 m²-koa da. Katastroko 3. poligonoko 171 partzelaren E azpipartzelako zatiari eta 173 partzelaren D azpipartzelako zatiari, eta Katastroko 4 poligonoko 15 partzelaren Q eta P azpipartzelako zatiei dagokio (Aprobetxamenduaren erreferentzia: Oihapart/2017/36).

2.) Lanak hasi baino lehen horren berri eman beharko dio Udalari, eta baita aprobetxamendua amaitu baino lehen ere, hark egiaztatu ahal izateko nola gelditu diren erabili diren bideak.

Halaber, ezarritako fidantza jarri beharko du, eta horren zenbatekoa jakinaraziko zaio.

Bideak ezin izanen dira egoera txarrean utzi. Hori gertatuz gero, hamabortz eguneko epea emanen zaio haiek konpontzeko. Bertzela, Udalak berak moldatuko ditu, aprobetxamendua egin duen jabearen kontura.

Orokorrean, eguraldi euritsuarekin ezin izanen da egurrik garraiatu, baldin eta horretarako baimen espresa ematen ez bazaio.

3.) Eskatzaileari jakinaraztea finka horiek komunal ageri direla udal katastroan, eta, ondorioz,

castaños en el paraje de Frain. La superficie de corta es de 4.000 m². Corresponde a parte de la subparcela A y a la subparcela C de la parcela 650, a parte de la subparcela A de la parcela 401, y a parte de la subparcela A de la parcela 651 del polígono 3 del catastro (Referencia del aprovechamiento: Oihapart/2017/35).

- Una matarrasa de acacias y de pino insignis en el paraje de Peruarangoerreka. La superficie de corta es de 16.104 m². Corresponde a parte de la subparcela E de la parcela 171 y a parte de la subparcela D de la parcela 173 del polígono 3 del catastro y a parte de las subparcelas Q y P de la parcela 15 del polígono 4 del catastro (Referencia del aprovechamiento: Oihapart/2017/36).

2º) Con carácter previo al comienzo de las labores de saca, deberá comunicárselo al Ayuntamiento y también antes de finalizar las mismas, a fin de que éste pueda comprobar el estado de los caminos utilizados.

Para ello tendrá que constituir la fianza establecida, cuyo importe le será comunicado.

Los caminos no podrán dejarse en malas condiciones. Si esto sucediera, se le dará un plazo de quince días para arreglarlos. En caso contrario, los reparará el Ayuntamiento, a cargo de los propietarios del aprovechamiento.

En general, no podrá transportarse madera con tiempo lluvioso, salvo que se le conceda una autorización expresa para ello.

3º) Comunicarle que las fincas figuran como comunales en el catastro municipal, por lo

erabaki honek ez duela deus adierazten lur-
eremuaren jabetzari buruz.

**9 - JUSTO APEZTEGUIA
LARRALDEK SUSTATURIKO XEHETASUN
AZTERLANA. BEHIN BETIKO ONESPENA**

Alkatetzaren 379/2017 zenbakiko
ebazpenak, 2017ko urriaren 6koak, hasierako
onespena eman zion Justo Apeztegeuia Larralde
jaunak sustaturiko xehetasun azterlanari
(Licobrme/2017/33. espediente).

Lurraldearen Antolamendu eta Hirigintzari
buruzko abenduaren 20ko 35/2002 Foru Legearen
76. artikuluari jarraikiz, espediente jendaurrean
ikusgai egon da 20 egunez, aldameneko jabeei
eginiko jakinarazpenen bitartez eta honako leku
hauetan argitaraturiko ediktuen bitartez: azaroaren
7ko *Diario de Navarra* eta *Diario de Noticias*
egunkarietan (Diario de Noticias-en zuzenduta
azaroaren 9an) eta 214. Nafarroako Aldizkari
Ofizialean, azaroaren 7koan, eta ezarritako epean ez
da inolako alegaziorik aurkeztu.

Abenduaren 13an (3.611.sarrera)
sustatzaileak Nasuvinsaren txostenak aipatzen zuen
1:500 eskalako planoak ekarri du.

Hirigintza-Batzordeak espediente ontzat
informatu du egun horretan berean egin den bileran.

Espedientean ageri da idazkariak
abenduaren 15ean emaniko txostena.

Nori ikusita, Osoko Bilkurak, kideen aho

que este acuerdo no supone pronunciamiento
alguno sobre la propiedad de las mismas.

**9 - APROBACIÓN DEFINITIVA DEL
ESTUDIO DE DETALLE PROMOVIDO POR
JUSTO APEZTEGUÍA LARRALDE**

Por Resolución de la Alcaldía nº 379/2017,
de 6 de octubre de 2017, fue aprobado inicialmente
el Estudio de Detalle promovido por don Justo
Apezteguía Larralde (Expediente
Licobrme/2017/33).

Conforme a lo dispuesto por el artículo 76
de la Ley Foral 35/2002, de 20 de diciembre, de
Ordenación del Territorio y Urbanismo, el
expediente ha sido sometido a información pública,
durante el periodo de 20 días, mediante
notificaciones efectuadas a los propietarios
colindantes y edictos publicados en el Diario de
Navarra (7 de noviembre) y Diario de Noticias (7 y,
corregido, el 9 de noviembre) y en el Boletín
Oficial de Navarra nº 214, de 7 de noviembre, sin
que durante ese periodo se haya presentado
alegación alguna.

El día 13 de diciembre (entrada nº 3.611)
el promotor ha aportado el plano a escala 1:500 al
que se hacía referencia en el informe de Nasuvinsa.

El expediente ha sido favorablemente
informado por la Comisión de Urbanismo en la
reunión celebrada ese mismo día.

Consta asimismo en el expediente el
informe emitido por el secretario del Ayuntamiento
con fecha 15 de diciembre.

A la vista de ello el Pleno, con el voto

bateko botoarekin, honako hau erabaki du:

1.) – Behin betiko onespena ematea Justo Apezteguia Larralde jaunak sustaturiko xehetasun azterlanari. Dokumentua Fernando Orset arkitekto jaunak idatzi du (2017/08/29ko 2.647. sarrera Udaleko Erregistro Orokorrean). Bittiriako Plaza 13ko partzela bateri dagokio (katastroko 2. poligonoko 29 partzela). Sustatzaileak 45 m²ko estalpe bat eraikin ahi du .

2.) – Erabaki hau Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratzea.

3.) – 35/2002 F.L.-aren 76 eta 74 artikuluek xedatzen dutenarekin bat (azken hori hirigintzaren eta etxebizitzaren arloko premiazko neurriei buruzko ekainaren 5eko 6/2009 Foru Legeak idatzita duen bezala), Nafarroako Gobernuko Lurraldearen Antolamendu eta Hirigintza Zerbitzuari igortzea, gehienez hamar eguneko epean, behin betiko onetsi den Xehetasun Azterlanaren ale bat, emaniko txostenen kopiarekin batean.

4.) – Erabaki honen berri ematea sustatzaileari, obra-baimena lortzeko, aurrez, Kantauriko Ur Konfederazioko baimena ekarri beharko duela adieraziz.

10 – ALKATETZAREN EBAZPENEN BERRI EMATEA

Zinegotzi guzietan pasatu zaie, posta elektronikoz, azken osoko bilkutatik gaur arte Alkateak emaniko ebazpenen zerrenda. Ez dutenei, aipatu zerrenda honen paperean

unánime de sus integrantes, acuerda:

1º) Aprobar definitivamente el Estudio de Detalle promovido por don Justo Apezteguia Larralde. El documento ha sido redactado por el arquitecto don Fernando Orset Mauleón (entrada nº 2.647, de 29/08/2017 en el Registro General del Ayuntamiento). Corresponde a la una parcela situada en Bittiriako Plaza 13 (parcela 29 del polígono 2 del catastro). El promotor desea construir un cobertizo de 45 m².

2º) Publicar el presente acuerdo en el Boletín Oficial de Navarra.

3º) De acuerdo a lo establecido por los artículos 76 y 74 de la L.F. 35/2002 (este último en su redacción dada por la Ley Foral 6/2009, de 5 de junio, de medidas urgentes en materia de urbanismo y vivienda), enviar al Servicio de Ordenación del Territorio y Urbanismo del Gobierno de Navarra, en el plazo máximo de diez días, un ejemplar del Estudio de Detalle aprobado definitivamente, junto con copia de los informes emitidos.

4º) Que se notifique el presente acuerdo al promotor, indicándole que para obtener la licencia de obra deberá aportar previamente el permiso de la Confederación Hidrográfica del Cantábrico.

10 - CONOCIMIENTO DE LAS RESOLUCIONES DE LA ALCALDÍA

Se ha pasado a todos los concejales, mediante correo electrónico, la relación de las resoluciones adoptadas por la Alcaldía desde la última sesión hasta el día de hoy. A los que no lo

inprimaturiko kopia bana utzi zaie, bakoitzari dagokion erretiluan.

Ondoren, eta Toki Erakundeen Antolamendu, Funtzionamendu eta Araubide Juridikoari buruzko Erregelamenduaren 91.4 artikulua xedatutakoaren arabera, alkate jaunak galdetu du ea talde politikoren batek premiazko arrazoiak direla-eta Udalbatzak eztabaidatzea nahi duen aferarik ote duen, deialdiarekin batera zihon gai-zerrendan ez zegoena eta "eskari-galderak" puntuan sartzerik ez duena.

Ez da inolako gairik planteatu.

11 - OSOKO BILKURAKO KONTROL-JARDUERA. ESKARI-GALDERAK

Ez da izan.

Aipaturiko eguneko ilunabarreko zazpiak eta bederatzi minutu direnean, eta, eztabaidatzeko gai gehiago ez dagoenez, alkate jaunak akabatutzat eman du bilera. Nik, idazkariak, egiaztatu egiten dut.

tienen, se les deja una copia impresa en papel de la citada lista, en su respectiva bandeja.

Seguidamente y conforme a lo establecido por el artículo 91.4 del Reglamento de Organización, Funcionamiento y Régimen Jurídico de las Corporaciones Locales, el señor alcalde pregunta si algún grupo político desea someter a la consideración del Pleno, por razones de urgencia, algún asunto no comprendido en el orden del día que acompañaba a la convocatoria y que no tenga cabida en el punto de ruegos y preguntas.

No se plantea cuestión alguna.

11 - ACTIVIDAD DE CONTROL DEL PLENO. RUEGOS Y PREGUNTAS

No se formulan.

Siendo las diecinueve horas y nueve minutos del día de la fecha y no habiendo más asuntos que tratar, el señor alcalde da por finalizada la sesión. De todo ello yo, como secretario, certifico.

